



San Ferminetako lehen entzierroa Okendon.- Udako Txokoetako txikiak osatutako taldeak elkartu zituzten Okendon ostiralean. Pixkat aurreratu eta San Fermin festa ospatu zuten. Zuri eta gorri jantzita iritsi ziren plazara korrika egiteko prest. Bertan egunkaria ondo tolestu, eskuartearen indartsu hartu eta San Fermi-
nen omenezko kanta entsaiatzen aritu ziren aurretik begiraleekin. Ondoren, Amona Joxefinak lagunduta hiru alditan kantatu zuten eta txupinazoarekin batera lehen entzierroa burutu zuten Okendon. Korrikaldi politak egin zituzten eta erorketa batzuk kenduta, entzierroa garbia izan zen. Hurrek ederki pasa zuten.

3 EMAKUMEAK

Zentro zibikoaren eskaintza handitu nahi du Udalak

Herriko PSE-EEren "gezurrak" salatu eta Emakumearen Zentroaren eskaintza hobetu egingo dela esan zuen Lasarte-Oriako udaleko gizarte zerbitzueta burua den Gorka Lizarragak ostiral eguerdian Emakumearen Zentro Zibikoan bertan egindako agerraldian.



4 POLITIKA

Eskualdeko Bilduko alkateak euskal presoaren alde

"Giza eskubideak, Irtenbidea, Bakea, Euskal presoak Euskal Herrira" leloarekin bat eginenez, Buruntzaldeako EH Bilduko zinegotzi eta alkateek euskal presoaren eskubideen aldeko hainbat konpromiso hartu eta haien berri eman zuten Villa Mirentxun asteazkenean egindako agerraldian.

4 UDALBATZARRA

Hipoteken IRPH indizearen aurkako PSE-EEren mozioa

Hipoteken interesa kalkulatzeko IRPH indize "kriminala" salatu zuten PSE-EEko zinegotziek STOP kaleratzeak taldeko bi kideekin batera. Astearteko Udala Batzarrean proposamen bat aurkeztuko dute, indize horiek desagertu eta euribor +1 indizea jartzeko eskatuz.

5 ELKARRIZKETA

"Guztia da polimeroa" dio Rakel Fernandezek

Rakel Fernandez herritarrak kimika ikasketak egin eta ikerketa munduan lan egiten du egun. Bere arloan, azobenezkoak, Estatuan jardun den ikerlari bakarrenetarikoa dela esan daiteke. Harekin bildu gara bere lanari eta ikerketaren mundua gertuagotik ezagutzeko asmoz.



IEFPS USURBIL GLHBI

MATRIKULA uztailaren 8tik 12ra

Goi-mailako
Erdi-mailako
HEZIKETA
ZIKLOAK



Mekanika



Elektrizitatea



Administrazioa




Energia eta ura

Mantenimendua

Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600 - e-mail: eskola@lhusurbil.com

Adituak dio



Kaixo lagunak!

Udaro bezala Uztailea eta Abuztua elkarrekin pasatzeko nahian nator. Duela 20 urte baino gehiago udalekuak martxan jarri zirela herrian eta sekretu bat esango dizuet; gaur egun zuen begira-leak direnak, ikusi ditut ere umeetan bustiblai eta San Fermi-nak ospatzen, egunkaria eskuetan.

Oraingoan, kostatu bazait ere, Lasarte-Oriara etorri naiz jakinda aurtengo udalekuak oso interesgarriak direla, hori esan baitit txoritxo batek. Txokoak ez dira denbora pasatzeko bakarrik, badakit alderdi asko izan dituztela kontutan zuek primeran pasa dezazuen eta era berean gauza berri pilo bat ikas ditzazuen.

Lainoek ez baldin banaute estaltzen betiko lagunekin eta berriekin, ur jolasetan, txitoak zaintzen, baratza landatzen, taldeen artean duelutan, pintxoak eta edabe magikoak egiten ikusiko zaituztet. Lasarte-Oriari buruzko sekretuak kontatuko dizkizuetela ere esan didate. Espero dut Mariren orraziaren bila egin beharrean nire bila etorri behar ez izatea!

Ah! Kanpora zoaztenak lasai, eguzki izpiak luzeak dira eta saiatuko naiz ere zuengana iristen. Ezingo nituzke galdu misioak eta enigmak askatzeko burupelotari emango dizkiozuen bueltak, ezta super-heroien abenturak ere.

Ondo pasa lagunak eta ea egunero ikusten dugun elkar! Eskerrik asko parte hartu nahi izan duzenoi eta batez ere urte urte udaran gauza pilo bat elkarrekin bizitzea erabakitzen duzenoi. Zuenak ez baitira edozein moduko udalekuak, zuenak udaleku euskaldun primerakoak baitira. Ez izan duda, euskaraz uda!

Zorion agurrak



Saioa

Zorionak! 7 muku potolo familiaren partetik!



Noa eta Amaia

Nahiz eta mafioso batzuen atzetik geratu, kuadrilategiko irabazleak izan zarete. Aupa neskak!



Alvaro

Zorionak zure bostgarren urtebetetzean. Muxu handi bat guraso eta Sergioren partetik!



Udane

Zorionak gure printzesari familiaren partetik.



Goreti

Zorionak bost muku handi etxeko printzesarentzat. Familia guztiaren partetik ondo pasa!



Ivan

Zure lehen urtea!! Beti izango gaituzu ondoan nola hazten zaren ikusten eta zure bihurriketari aguantatzen.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Garaje marra bat alokatzen da Lasarte-Oria erdigunean. Merke. 687 271 288
- Bizi naizen pisua konpartitu nahi dut. Zentroan dago, argitsua da, bi gela ditu eta balkoi handia. Animatu! 647 884 278 Pilar
- Garajea alokatzen da Atsobakarren, Garaikotxe ikastetxe parean. Sarrera erraza du, handia eta merke da. 943 26 54 76 / 659 021 945

Salerosketak

- Kotxea salgai. Mercedes Vito 4000 eurotan. (Ohea du) 630032779
- Umeentzako aulki bat salgai egoera onean. Maclaren Techno-xt markakoa. Erosten duenari egurrezko seaska bat opariuko nioke. 687 965 454.

Lan-eskariak

- Etxeko lanak egiteko, edadeko pertsonak zaintzeko eta garbiketa lanetan aritzeko pertsona bat eskaintzen da. Harremetarako telefonoa, 620 019 449.

Bestelakoak

- Haur-pultsera bat aurkitu da Hipodromo etorbidean. Norbaiti falta bazaio dei dezala 654 167 077 zenbakira.

Hitz eta pitz

Zer egiten dute umeek oporretan?



Mari Karmen Roteta

Neskatila txokoetan dabil eta mutikoa amonaren batekin dago. Gurasoak lanean daude, baina, bi amona eta aitona bat konpontzen gara. Kanean ibiltzen gara, jolasten. Gu txikiak ginenean ez zen opor askorik, 15 bat egun izaten ziren orduan, baserrian egoten ginen eta auzokoekin jolastu. Haurtzaroko oroitzapen ona daukat, asko gogoratzen naiz. Orain umeak ez dakit jolastean dakiten, edo denborarik ere ez dute jolasteko, gauza gehiegitan dabiltzalako.



Raul Lopez

Gurasoak lanean gaude eta txokoetara joaten dira goizean. Oso ondo pasatzen dute gainera, jolasean. Gero, bazkal-ostean parkeetara goaz eta, orain, ea eguraldi ona helzten den hondartzara joan. Askoz gehiago ez, inguruak daukagunaz gozatu, mendia, hondartza... Txikiak ginenean plazan egoten ginen, eta, gero, 16 bat urterekin, bizikletan esperientzia berrien bila Usurbilera edo Zubietara joan. Gauza asko egin daitezke, baina eguraldi ona ere beharrezkoa da.



Rakel Fernandez

Uztailean txokoetara joaten dira eta abuztuan gurekin oporretara. Bestela, aiton-amonekin moldatzen gara. Dena den, ez dugu beraien behar handirik. Hondartzara joan, igerilekura, parketara, txirringan ibiltzera... denetarik egiten dugu. Gurasoek lana egiten badute, ondo daude txokoak. Gainera, oso ondo pasatzen dute, ondo antolatuta daude. Gu txikiak ginenean amarekin egoten ginen plazan edo hondartzara joan, ez ginen txokoetara joaten.



Raul Rodriguez

Uztailean txokoetan daude eta abuztuan, agian, asteren bat kanpora joango gara. Txokoetan gustura egoten dira ikastolako lagunekin. Arratsaldean plazara etortzen gara. Hondartzara joan ginen iaz, baina nahikoa lan hiru umerekin. Bati ez zaio gustatu. Aurtun ere probatuko dugu. Gu, eskola amaitu eta herrira joaten ginen, Salamankara aitaren herrira, edo Caceres-era amenera. Edo 15 bat egun batera eta beste 15 bestera. Han, batez ere, igerilekura joaten ginen.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



GFako Kultura eta Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizagire, Jon Altuna I., Maider Azurmendi, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

UDALA



PSE-EEren "gezurrak" ukatu eta Emakumearen Zerbitzuan murrizketarik ez dela izango esan zuen Gorka Lizarragak.

PSEren "gezurrak" salatu ditu Gizarte Sailak Zentro Zibikoan

Zentroaren eskaintza, murriztu ez, hobetu egingo dela ziurtatu du Gorka Lizarraga Bilduko zinegotziak

PSE-EEren gezurrak salatu eta Emakumearen Zentroaren eskaintza hobetu egingo dela esan zuen Lasarte-Oriako udaleko gizarte zerbitzuetako buru Gorka Lizarragak ostiral eguerdian Emakumearen Zentro Zibikoan bertan eman zuen prentsaurrekoan: "Kokoteraino gaude PSE-EEren gezurren aurrean aurpegia eman beharrekin". Aldi berean, ukatu egin zuen emakumeari eskaintzen zaion zerbitzuan murrizketarik egongo denik: "Zabalduta eta hobetu egingo da, argi izan behar da ez dela, ez murriztu, ez ezabatuko, gaur egun egiten den ekintza bat bera ere. Alderantziz, zentroaren aurrekontua 32.000 eurotan handituko da".

Jon ALTUNA IZA

Gorka Lizarraga Bilduko zinegotzi eta Lasarte-Oriako Udaleko Gizarte Zerbitzuen batzorde buruak PSE-EEren "gezurrei" erantzun nahi izan zuten ostiralean Emakumearen Zentro Zibikoaren atarian eman zuen prentsaurrekoaren bidez.

Lizarragak esan zuen normala dela PSE-EEK aurretik zerabiltzan politika batzuek aldatzea Lasarte-Oriaren Gobernu taldea aldatu zenetik bi urte pasa direnean, eta ulertzen duela horietako batzuk PSE-EEren gustuko ez izatea, "bestela beraiek jarriko zituzten aurretik abian", baita oposizioak udal gobernuaren kontrol eta kritika lana egin behar duela, "berau positiboa da herriarentzat", baina inola ere ez duela onartuko "behin eta berriro gezurrak erabiltzea herritarrek aztoratu eta beldurtzeko".

Emakumeen ezinegona

Lizarragak kontatu zuenez uztailaren 2an Emakumearen Zentro Zibikoaren erabiltzaileekin bildu ziren eta komunikabideen bidez jasotako informazioen ondorioz emakumeak beldurturik eta galduita aurkitu zituztela.

Ondoren, PSE-EEK zabalduko "perla" batzuek gezurtatu zituen Lizarragak: "Bilduk zerbitzuarekin akabatu nahi du", "Zerbitzua bertan behera uztea da beraien intentzioa" edo "ez daki zer egin zentro zibikoarekin". Adierazpen horiek ez direla egiazkoak esan eta azalpenak eman zituen Gorka Lizarragak. Argi adierazi zuen ez dela ezer ere murriztuko. "Aldatu bai, hobetzeko helburuarekin. Zentroaren kudeaketan egingo den aldaketa, gaur egun ematen diren zerbitzuen zabalpen eta hobekuntza oinarrituko da".

Lasarte-Oriako egoeraren diagnostikoa egin eta horretan

oinarritutako proiektua buruzko asmotik PSE-EEK zentroarekin zer egin ez dakitela ondorioztatuta badu ere, ikuspuntu desberdina erakutsi zuen Gorka Lizarragak: "Badakigu zer egin. Orain arte egin denarekin jarraitzeaz gain, zerbitzua hobetu eta udalerrri guztiko emakumez arduratuko gara, ez bakarrik zentrorantz hurbildu ohi direnez".

Kudeaketa garbia

Kudeaketa gardena ere defenditu zuen Lizarragak: "Falta zitzaiguna! Pertsonalaren kontratazioarako baldintza pleguak "susmagarriki" egin ditugula leporatzen digu PSE-EEK. Garbi geratu dadila: Alkatesaren bulegoan faboreak lortzen ziren garai hura bukatu zen, eta gure eskuetan baldin badago, ez da berriro errepikatuko. Gainera, azaldu dezakezu zer alde negatibo duen zerbitzuaren arduradunak diplomatura bat eta berdintsean nahiz sexologia masterrak izateak? Gustura entzungo genuke erantzuna".

Azkenik zerbitzuaren zabalkuntzaren onurak azpimarratu zituen zinegotziak: "Gure aldetik, eta zentroko emakumeekin erreallitate partekatuta ondoren, ez dugu batere zalantzarik zerbitzuaren handipenaren alde positiboetan eta garbi dugu ez digutela aurpegio irribarrerik kenduko gurpiletan jarri ditzaketan traba gehien jarrita ere".

GARRAIOA

TSSTko T2 eta T6 autobusetan aldaketak

TSSTk jakitera eman duenez herritik pasatzen diren bi autobus ibilbidean moldaketak egin ditu T2 eta T6an. Hain zuzen, Usurbil-Hernani eta Usurbil-Ospitaleak lineatan burutu ditu aldaketak. Autobus konpainiarekin esanetan "guztira hiru linea hobetuko dira". Aurrerantzean honela izango da zerbitzua herrian; Usurbil-Hernani autobusek Usurbil, Zubieta, Lasarte, Urbil eta Hernani lotuko dituzte astelehenetik larunbatera 7:15etik 21:15ak arte orduro. Jai egunetako zerbitzua, aldiz, arratsaldetan eskainiko da 15:15etik 21:15era.

Usurbil-Ospitaleak autobus ibilbidea hobetzeko, Oria zeharkatuko dute autobusek (Zubieta kenduta), baita egunean sei aldiz Aginaga ere. Gainera, zerbitzua astelehenetik larunbatera eskainiko da. Horrela, ospitaleetako langileen sarrera-ordutegiara egokituz, 7:20etik 22:40ak arte orduro izango dira autobusak Usurbildik Ospitaleetara eta bueltan 8:50etik 20:50era. "Sarrera-ordutegiak kontutan hartzen diren moduan, irteerakoak ere kontutan hartu ditugu" eta 8:10, 15:10 eta 22:10ean Ospitaleetatik Usurbilerako zuzeneko autobusak egingo dira.

IKASTURTEA

Kukukan ikasturte berrirako matrikula zabalik

Zabalik da ikasturte berrirako matrikula egiteko epea Kukuka Antzerki eta Dantza eskolan. Gaur hasi, uztailaren 8tik eta 15era bitartean egin behar da izena ematea eta honetarako bi bide erabil daitezke, telefonoz 655 847 345 zenbakian edo email bat bidalita, kukukaeskola@hotmail.com helbidera.

Aurtengo eskaintzari dagokionez, LH5, LH6 eta DBHkoek antzerkia, dantza garaikidea, euskal dantza sorkuntza eta Break dance egiteko aukera izango dute. Gazte eta Helduek berriz, antzerkia, dantza garaikidea eta sorkuntza izango dute aukeran. Txikienean, HH5eko umeek euskal dantza hasi ahal izango dute. LH1-LH3 antzerki eta euskal dantza egin ahal izango dute eta LH4ko ikasleek antzerki, euskal dantza eta sorkuntza artean egingo dute hautua.

Egun eta ordutegi ezberdinak jarri ditu aukeran Kukuka antzerki eta dantza eskolak datorren ikasturterako. Arduradunek animatzen dituzte herritarrek hauetan parte hartzea.

SANTA ANA

Parodiarako aktoreak behar dira

Urtero Ttakun K.E.-ek antolatzen duen Santa Ana Parodiarako aktoreak behar dira. Herritarrek ekimen dibertigarri honetan parte hartzeko deia luzatu nahi du antolakuntzak. Junkal Perezek hitzetan ez da dohai berezirik behar "ondo pasatzeko gogoa besterik ez".

Parodia uztailaren 26an izango da 22:30ean Okendon eta aurretik hainbat entsegu egun finkatuko dira. Egunean bertan ere entsegu orokorra egingo da Manuel Lekuonan eta ondoren afaria Parodia antzestu baino lehen.

Interesa duten herritarrek Ttakuneko bulegotik pasa daitezke, telefonoz deitu 943 37 1 4 48 zenbakira edota kultura@ttakun.com helbidera mezua bidali dezakete.

ELKARTEA

Lasartearraren urteurrena

Uztailaren 31ean Bazkidearen eguna ospatuko dute Lasartearra elkarteak. Hau dela eta bazkari berezia egingo da egun honetan eta parte hartzeko aurrez izena eman behar da. Azken eguna uztailaren 25ean izango da.

Horretaz gain, elkartearen 40 urteak direla eta egindako kamisetak dagoeneko bazkideek jaso ditzakete elkartearen.

GAZTELEKUA

Udan ordutegi aldaketa

Gazteria, Festak eta Kirolak departamentutik jakitera eman dute hilabete honetan Gaztelekuak izango duen ordutegia. Goizez, 11:00etatik 13:00etara zabalik izango da eta arratsaldez, 18:00etatik 21:00etara.

Abuztuaren berriz, Gazteleku itxita egingo dela ere aurreratu dute.

Eskualdeko EH Bilduko alkateak euskal presoen eskubideen alde

■ Hainbat konpromiso hartu dituztela azaldu zuten agerraldian alkate eta zinegotziek

“Giza eskubideak, Irtenbidea, Bakea, Euskal presoak Euskal Herrira” leloarekin bat eginez, Buruntzaldeako EH Bilduko zinegotzi eta alkateek euskal presoen eskubideen aldeko hainbat konpromiso hartu eta haien berri eman zuten Villa Mirentxun asteazkenean egindako agerraldian.

Pablo Barrio Lasarte-Oriako alkateak irakurri zituen konpromisoak. Alkateak urtarilaren 12an, euskal presoen eskubideen alde egin zen manifestazioa izan zuten gogoan “inoiz egin den manifestaziorik jendetsuena burutu zen Bilboko kaleetan. Zalantza gabe, Euskal Herrian burutu den manifestazio jendetsuenetakoa izan zen”.

EH Bilduren iritziz, “manifestazioaren leloak zehatz laburtzen du euskal gehiengo politiko eta sozialaren aldarria eta esijentzia: Giza eskubideak. Konponbidea. Bakea. Euskal presoak Euskal Herrira”.

Herritarren eskaera

EH Bilduko alkate eta zinegotzien ustetan herri interpelazio erraldoia suposatu zuten Bilboko mobilizazio hark eta

honekin “Espainia eta Frantziako gobernuari aurpegiaratu zitzaizkien gatazkaren konponbiderako aukeraren aurrean duten blokeo jarrera”.

Era berean alkateen iritziz, “eragile politiko, sindikal eta sozial guztiak interpelatu gaituzte. Euskal jendarteak konpromisoak eskatzen dizkigu guztioi; dispersioarekin amaitzeko, giza eskubide guztien aitortza eta errespeturako, gatazkaren konponbiderako eta bakearen eraikuntzarako”.

Aldarrikapen horiek lehen-tasunekoak dira EH Bildurentzat agerraldian esan zuten eta bidezkoak izateaz gain, jendartearentzat ere garrantzitsuak direla argi dutela azpimarratu zuten. “Presoen eskubideen inguruko adostasuna dago euskal gaitartean. Euskaldunok jakin baitakigu presoen eskubideak betetzen ez diren bitartean

prozesuak aurrera egiteko zama jasanezina izango duela”.

Hauen ustetan, ezinbestekoa da dispersioaz eta neurri horrek dakartzan eskubide urraketekin berehala amaitzea. Konponbide prozesuari Madrilek eta Parisek ezartzen dioten blokeoa gainditzea.

Konpromisoak

Arazoi hauek tarteko, EH Bilduk eta koalizioaren hauteskiek honakoak bultzatuko dituzte eskualdeko udal guztietan: herriko presoen egoeraren inguruko udal dosierra egingo dute hilabeteko epean eta sei hilero berritu; hasierako dosierra Instituciones Penitenciarias-era, Audientzia Nazionaleko Espetxe Zaintzako Epailari, Justizia Ministerioetara eta Estrasburgoko Giza Eskubideen Batzordeari igorriko zaizkie bertan jasotzen diren eskubide-urrietarako ekiditeko eskaerarekin.

Herriko presoekin bisita erronda ofizialari egingo diote udal ordezkariak; Herriko presoek udal erabakiak eta udalak argitaratu edo ateratu



Alkate eta zinegotziak Villa Mirentxun egindako agerraldian.

ko materialaren ale bana bidaliko zaie; Hilabeteko azken ostiraletan Herrirak deitutako elkarretarazteetan parte hartuko dute modu ofizialean; Udaleko ordezkari gisa parte hartzen duten ekitaldi guztietan presoek eskubideen defentsa adierazten duen txartela eramango dute; Preso gaixoak dauden herrietan alkateen taldean parte aktiboa hartuko dute preso hauek etxeratu arte.

Hiru hilabetearen behin herriko presoen senideekin bilerak egingo dituzte, egoeraren berri modu zuzenean izateko; Euskal Herriko kanpo dauden presoek bisitatzeko diru-laguntzak eman ahal izateko araudia onartuko dute.

Azkenik, Etxerat eta Herri-erakundeak eskualdeko alkateek adierazi zutenek, udal lokalak utziko zaizki beraien bilerak edo lanak egin ahal izateko.

Hipoteken IRPHaren aurkako mozioa aurkeztu du PSEk

Hipoteken interesa kalkulatzeko IRPH indize “kriminala” salatu zuten asteazkenean prentsaren aurrean PSE-EEko zinegotziek STOP kaleratzeak taldeko bi kideekin batera. Hain juxtu, astearteko Udal Batzarrean proposamen bat aurkeztuko du alderdi honek, indize horiek desagertu eta euribor +%1 indizea jartzeko eskatuz.

Gaur egun jada ezin da IRPH indizearen bidez hipotekarik kontratatu, baina 2004 eta 2010 artean milaka sinatu ziren eta horiek dauzkatenean bankuen gehiegikeria salatu dute. Ekonomia ministerioak ezarri behar du IRPHaren ordezkari indizea zenbatekoa izango den, 2012ko apirilera espero zuten hori, baina 2013ko urria arteko epea hartu du ministerioak horretarako. Bien bitartean kaltetuek hileroko 300-400 euro gehiago ordaintzen dute.

Gainera, Kutxa-n kreditoa eskatu zutenek, euriborra +%1 indize alternatiboa sinatuta duten arren, bankuak ez du aplikatzen ministerioak agindua eman arte.

STOP kaleratzeak taldeko Monica Zuñiga eta David Guiradok IRPH indizeak kaltetutako egoera azaldu zuten asteazkenean PSEren egoitzan, alderdi honetako Jesus Zaballor, Lourdes Acebedo eta Txus Alonso zinegotzien aurrean.

Bankuen esku

Estatu mailan kaltetuak milioi eta erdi direla azpimarratu zuten STOP kaleratzeak taldeko ordezkariak. Indize hori, bankuek manipulatzeko dutela salatu dute, kalkulatzeko denbora tarte batean euren bezeroei kobratutakoaren batz bestekoa izaten dutelako kontuan. Horrela, euriborra jaitsi egin den arren, azken urteotan etengabe igo da indize hori: kutxen IRPHa %4an dago, bankuen IRPHa %3,2an eta euriborra ez da %0,5era iristen.

Kreditoak sinatu zituztenean, euriborrak baino gorabehera gutxiago zuten indizea zela esan zieten banketxetan. Orduan %04-06 artekoa zen indizea; orain, ordea, %4,0an dago.



Jesus Zaballok STOP kaleratzeak-eko Monica Zuñiga eta David Guiradorekin.

Jesus Zaballosek azaldu zenez, aurreko astean Gasteizko Parlamentuan PSE, EAJ eta Bilduk onartutako eskaera berbera egin dute Lasarte-Orian ere, astearteko ohiko udal batzarrean onartu dadin. Bost puntu proposamen horretan, Udalari eskatzen zaio Ekonomia ministerioari eta banketxei zenbait eskaera egiteko.

Esaterako, Ekonomia eta Lehiakortasun ministerioari

IRPHak desagertaraziko dituen behin-behineko erregimena martxan jartzeko eta desagertuko diren indize horien ordezkari euriborra +%1 indizea ezartzeko eskatuko dio Udalak. Espainiako Gobernuari, aldez, egoki ikusten duen aginduaren bidez IRPHak desagertzeko neurriak hartu ditzala lehenbailehen.

Bankuei, ordea, ministerioaren aginduen zain egon

gabe, indize alternatiboak abian jartzeko eskatuko zaie, berazki, hipotekatan ordezkari indizea jarrita daukaten bankuei ezartzeko.

Egoera larria

STOP kaleratzeak taldeko kideek salatu dutenez, egoera larria, etxetik kaleratzeko arriskuan dira familia ugari. “Bankuek manipulatzeko eta erabakitzen dute indizea, euren interesen arabera, eta jokabide kriminala da. Gutxi gorabehera euriborra baino 10 aldiz gehiago ordaintzen ari dira herritarrak, eta horren ondorioz familia asko ordaindu ezinik dabilta eta etxea galtzeko arriskuan”.

Kaltetuak Donostiako Izotz Jauregiaren lokal batean biltzen dira asteazkenean eta stopdesahucios@plazan.net helbide elektronikoaren bidez jarri daiteke edonorekin hartuemanetan. Zuñiga eta Guiradok nabarmendu zuten kaltetu asko dagoela, eta lotsarik gabe jarri daitezela beraien harremanetan.

Rakel Fernandez Ikerlaria

“Gure gorputzeko DNA-tik hasita, guztia da polimeroa”

Kimika ikasi eta Rakel Fernandez herritarrak bi aukera zituen bata enpresaren mundua sartu edo ikerketa munduan. Bigarren bidea aukeratu zuen. Bere arloan, azobenzenoak, Estatu-ko bakarrenetarikoa da. Harekin bildu gara bere lanari eta ikerketa munduari buruz gehiago jakiteko.

Nerea EIZAGIRRE

Polimeroen mundua oso zabal da. Guztia da polimeroa. Ez gara konturatu baina ohiko bizitzan polimero asko dago. Ontziak, botilak, arropa, poltsak... guztiak dira material polimerikoak, naturalak ez badira sintetikoak. Metalak edo zeramikoak izan ezik, beste material guztiak polimeroak dira. Gure gorputzeko DNA-tik hasita, adierazi digu Rakel Fernandezek polimeroei buruz galdetzean. Izan ere, kimika ikasketak bukatu eta bere espezializazioa polimeroak izan ziren.

Nola hasi zinen ikerketa munduan?

Ikasketak bukatzean Leonardo Da Vinci diru laguntza eman zidaten eta honekin Tolosara, Frantziara joan nintzen CNRSra praktikak egitera. Hau Espainiako CSID-en antzekoa izango litzateke. Ikerketa zentroa da eta bertan sei hilabete egon nintzen. Hori izan zen ikerketarekin izan nuen lehen harremana.

Eta gero doktoretza egiteko dirulaguntza eskatu nuen tesia Donostiako politeknikoan egiteko. Tesia bukatu eta geroztik bertan nago lanean.

Zer nolako lanak egiten dituzu?

Donostiako taldean polimero sintetikoekin, plastikoekin eta naturalekin egiten dugu lan. Azken hauetan daude zelulosa edo quitosanoak.

Honela, materia desberdinak garatzen ditugu erabilera desberdinak kontuan izanik.

Unibertsitatean lan egiten dugunez, ez dugu bilatzen erabilera zehatz bat. Hori zentro teknologikoetan egiten dute. Guk materialen estruktura, estruktura eta ezaugarrien arteko loturak, etab aztertzen ditugu. Ez dugu produktu batentzako erabilera hainbeste bermatzen.

Nire kasuan epoxi materialak buruz egin nuen tesia. Epo-

xia erretxina da eta gogortzean solidoa geratzen da. Itsasgarrietan edo margoetan erabiltzen da.

Material gardenak dira eta ezaugarri mekaniko eta elektriko onak dituzte. Baina nik ez dut horretarako erabili.

Zein erabilera eman zenion?

Nik material horri beste erabilera bat eman nion, ezaugarri optikoekin.

Molekula jakin batzuekin eraldatu nuen, fotosentikorrek zirenak eta argiarekin ematean orientazio magnetiko zehatz bat sortzen zen.

Ez da erraza ulertzeko baina adibide bat jarriko dut. Material honekin lortu nahi nuena CD edo DVDen antzera datuak jasotzea zen.

Orduan, epoxi material hori laser batekin argituz gero, erreakzio bat sortzen da molekula berezi horietan, azobenzenoetan eta puntu horretan orientazio bat sortzen da.

Eta hori informazio byte bat bezala izango litzateke. Orientazioa duen eremu bat eta bestea, 0 eta 1ak konparatzea bezala izango litzateke.

Horrela epoxi material desberdinak aztertu eta nik gehitzen nizkien molekula fotosentikorrek kontuan izanik, estruktura desberdinak sortzen nituen, kontrakzio kimikoak egiten nituen.

Material horretan zenbat orientazio sortu nezakeen aztertzen nuen, orientazio horrek zenbat irauten zuen... Eta hauek ezabatu eta berriro ere beste orientazio bat eman ahal nion laser edo polarizagailuekin.

Beraz, azterketa hutsa da...

Bai horrela da. Ez dugu gailu garatzen. Nik materialaren portaera aztertu nuen.

Nahiz eta erabilera baterako zehaztu, materialak aztertu eta moldatzen ditugu.

Eta molekular horiek aztertzen jarraitzen al duzu?

Bai, nik azobenzenoekin jarraitzen dut lanean.

Sistema edo materiala aldatu dut, epoxia, gero blokeko kopolimeroak, hau da, polimeroen nahasketa bat eta orain quitosanoekin ari naiz lanean.

Krustazeoetatik lortutako materiala da, naturala, berriztargaria, biodegradagarri eta gainera bakterizida da.

Erabilera asko izan ditzake etorkizunean, esate baterako, jakien bilgarri bezala. Eta azobenzenoarekin moldatuz beste propietate bat ematen diozu.

Eta ba al da beste talde edo pertsonarik azobenzenoekin lanean?

Donostian nagoen taldean polimeroekin, epoxi, poliuretano eta polimero naturalekin egiten dute lan eta ni naiz bakarria azobenzenoekin lan egiten duena.

Espainia mailan talde bat ezagutzen dut Zaragozan CSID-en parte dena eta besterik ez.

Eta Euskal Herrian nik behintzat ez dut beste ikerlaririk ezagutzen molekula hauekin lan egiten duena. Beraz, azobenzenoekin moldatutako materialekin lan egiten duen lehen taldea izan ginen Euskal Herrian.

Talde potenteenak Kanadan eta Japonian daude. Horregatik, Kanadan izan nintzen. Azobenzenoetan aditua den talde bat ezagutzera joan nintzen.

Estatuan aditu-ihesa dagoela diote, zu joango al zinateke?

Nik ikerketa egonaldiak egin ditut. Sei hilabete egon nintzen Tolosan. Tesia Argentinako unibertsitate batekin batera egin nuen eta bi hilabete izan nintzen bertan. Eta Kanadan ere izan naiz.

Baina bizitzera joatea edo bi urteko egonaldia egitea ez dago nire buruan.

Hemendik ateratzea oso interesgarria da, besteek nola egiten duten lan ikusten duzu... eta ikerketa munduan, ikerlariei hori eskatzen zai ikerketa munduan jarraitzeko.

Baina gogorra da ere eta nire kasuan ez nituzke nire familia eta lagunak utziko ikerketarengatik.

Baina aukera gehiago al dago atzerrian?

Egia da aukera gehiago dagoela atzerrian eta gainera, bi urte kanpora joan eta gero, hemen ikerlari lan finkoa lortu ahalki nukeela.

Honetaz gain, hemen aukera gehiago dute atzerriarek, hemengoak izan eta atzerriara joan ez denak baino.

Eta aditu-ihesa badago ere atzerrian. Hona asko etortzen dira. Ikerketan horrelako elkarlanak oso balioetsiak daude.

Krisia nabaritzen al da ikerketa munduan?

Nabari da. Izan ere, gu dirulaguntzak baititugu ikerketan lan egin ahal izateko.

Tesia egiteko eta doktoretza bukatzean lanean jarraitzeko laguntzak ditugu. Nik tesia eta doktoretza ondorengo Euskal Herriko Unibertsitateko laguntza batekin egin ditut.

Badaude beste ikerlariak Eusko Jaurlaritzako diru laguntzak dituztenak edo Ministerio-koak.

Orain arte, deialdiak normal atera dira, baina esate baterako, ekainean Unibertsitateko dirulaguntza bukatzen zait eta nik orain Juan de La Cierva dirulaguntza eskatu dut Ministerioak eskaintzen duena.

Aurten %40 murriztu dute laguntza eta %18a igo da aurkeztu garen ikerlarien kopurua. Hau da, 2800 pertsona baino gehiago aurkeztu gara eta 200 dirulaguntza emango dituzte, arlo guztientzat fisika, kimika, literatura... Beraz, kasu honetan zaila dago.

Irakaskuntza arloan murgilduko al zinateke?

Niretzat oso aberasgarria izango litzateke ikerkuntza eta irakaskuntza bateratzea.

Baina oso zaila da, oso plaza gutxi daude eta pixkanaka joan behar da.



**HARITZA
TERAPIA
ENERGETIKOAK**

**MASAJEAK
eta
OSTEOPATIA**

**uztailak 8tik 12ra
prezio bereziak**

“Egia da aukera gehiago dagoela atzerrian eta kanpora joan eta gero, hemen ikerlari lan finkoa izango nukeela”

Urko plaza 1 • Lasarte-Oria
Tel.: 605 759635
joxean@haritzaterapiak.com

LABURRAK.-

IGERIKETA.-

Unanue txirringuluria hirugarren

Ekainaren 29an, junior mailako Santa Lutzia Saria proba izan zen Ezkio Itsason. Honetan Buruntzazpi txirringuluritzako Jon Ander Unanuek brontzezko postua eskuratu zuen.

Atletak fin proba ezberdinetan

LOKE taldeko gazteak probaz proba dabitzu. Lehengo astean Ordizian proba librea izan zuten. Honetan, Jon Altunak 800 m. lasterketarako bere marka hobetu zuen.

Ekainaren 22an, aldiz, juvenil mailako Itoitz Rodriguez, Maria Eugi eta Ane Galardik Durangon Espainiako txapelketan parte hartu zuten. Hirurak 400 m., 200 m. eta 100 m. lasterketarako final aurrekoetan izan ziren lehian, hurrenez hurren.

Era berean, asko dira lasterketa ezberdinetan parte hartzen ari diren herritarrek eta ekainaren 23an, Noainen Raul Tejado izan zen garaile.

Kiroldegiko bulego orduak udan

Lasarte-Oriako Udako Kirol Zerbitzuak jakitera eman du uztaila eta abuztuaren bulegoak udako ordutegia izango duela.

Bulegoa astelehenerdik ostiralera, goizez, 9:00etatik 12:30era bakarrik egongo da irekia. Asteburuetan itxia egongo da.

FUTBOLA.-

Zorte txarra Donosti Cup-en

Uda iritsi da eta nahiz eta futbol denboraldia amaitu, aste betez Donosti eta bere inguruetan kirol hau izan da nagusi Donosti Cup lehiaketari esker.

Txapelketa lehengo astean burutu zen eta nazio ezberdinetako taldeak parte hartu zuten honetan. Ostadar SKT-ren izenean bi talde izan ziren lehian, B-11 eta B-14 mailatan eta kontsolazioa jokatu zuten bietan.

Lehen taldean 2002 urtean eta geroago jaiotako haurrek futbol 8 modalitatean parte hartu zuten.

Aurkari bezala, Frantziako Charenton, Argentinako Tucuman eta Donostiako Zuhaitzi taldeak izan zituen eta hiru partidak galdu zituen.

Primerako emaitzak

Buruntzaldea IKT-ko igerilarien domina uzta Gipuzkoako txapelketan

Gipuzkoako txapelketa, San Juan eta San Martzial Sariak... bi aste hauetan Buruntzaldea IKT-ko igerilariak dominak eta markak hausten jarraitu dute.

TXINTXARRI

Buruntzaldea IKT-ko igerilariak ez dute atsedetik hartzen. Nahiz eta herriko jaiak izan ekainaren 29 eta 30ean maila ezberdinetako Gipuzkoako txapelketan izan ziren borrokan.

Domina ugari lortu zituzten Buruntzaldea IKT-ko neska-mutulek. "Oso txukun aritu ziren lortutako domina eta markak erakusten duten bezala," aipatu du Borja Apeztegia entrenatzaileak.

Infantil mailan, Iñigo Ibarburu nagusi izan zen lau probetan: 50 m., 100 m. eta 200 m. libreetan eta 100 m. tximeletan. Gainera, 50 m. eta 100 m. tximeleta probetako bere marka hobetu zuen eta azken honetan Euskadiko 16 urteko errekorra oso gertu izan zuen.

Ainara Garcia bi probatan, 50 m. eta 100 m. bular probetan txapeldun izan zen eta txapeldun orde, berriz, 200 m. bular proban. Hiru probetan markak hobetu zituen.

Naiara Lizasok, berriz, hiru brontzezko domina eskuratu zituen 50 m. eta 200 m. libre eta 50 m. tximeleta pro-

betan. "200 m. libreko marka bitan apurtzeko indarra izan zuen" eta Espainiako txapelketako marka gutxienezkotik oso gertu geratu zen.

Janire Berasartek 50 m., 200 m. eta 400 m. libre probetako markak hobetu zituen eta 4x100 erreleban 100 m. bizkar zatian bere marka pertsonala hautsi zuen.

Maialen Casadok eta Unai Irigorasek ere haien markak hobetu zituzten. Maialenek 50 m. tximeleta eta 100 m. libre probetan eta Unaiak 50 m. libreetan.

Beste mailak

Hauetaz gain, Mikel Esnal, Haitz Mitxelena, GARAZI Alkorta eta Jone Vazquez ere izan ziren junior, promesa eta maila absolutuko txapelketan.

Mikel Esnalek 50 m. libre proban marka hobetu zuen, baita 4x100 m. estiloak errelebu 100 m. bizkar zatian ere.

Garazi Alkortak 50 m. eta 100 m. libre eta 50 m. tximeleta probetan marka pertsonalak egin zituen. Jone Vazquezek ere 100 m. libreetan hautsi zuen bere marka.

Errelebuetan lan ederra



Buruntzaldea IKT-ko igerilarien San Martzial proba ondoren. BURUNTZALDEA IKT

egin zuten. "Nahiz eta baja garrantzitsuak izan," neskek 5 errelebuetan markak hobetu zituzten.

Sariak

Bestalde, ekainaren 22an, igerilariak bi sari ezberdinetan izan ziren lehiatzen, Tolosako San Juan Sarian eta San Martzial Sarian Irunen.

Tolosan aipatzekoa da Mikel Esnalek sailkapen orokorrean lortutako bosgarren postua. "Mikel 50 m. eta 100 m. probetan jardun zen eta bietan oso txukun aritu zen," aipatu du Apeztegia entrenatzaileak.

Gainera, Nahia Jie Villamediana alebinak 200 m. bizkar eta 100 m. tximeleta

probetan marka pertsonalak hobetu zituen.

Arratsaldean, berriz, Irunen izan ziren San Martzial Sarian. Honetan Haitz Mitxelena 200 m. tximeletan urrezko domina eta 100 m. tximeletan brontzea eskuratu zituen.

Itsaso Tolosa 100 m. bizkar proban bigarren izan zen eta hirugarren 200 m. bizkar proban.

Iñigo Ibarburuk zilarrezko domina eskuratu zuen 400 m. libre proban eta honetaz gain, Espainiako txapelketarako marka gutxienezkoa lortu zuen.

Mikel Esnalek ere, bigarren postua eskuratu zuen 50 m. libre proban.

TENISA.-

Lasarte-Oriako txapelketa martxan

Lasarte-Oriako tenis txapelketako lehen partida, aurreko astean, uztailaren 1ean jokatu zen Michelin kirol gunean eta dagoeneko txapelketako lehen txanda jokatu da.

40 parte hartzaile dira uztailaren 26ko finalean egoteko lehiatuko direnak. Hauen artean, iazko finalista, Jose Mari Muñoz-Baroja eta Santi Lorenzo herritarra daude, baita beste bost lasarteoriatar ere.

Herriko jokalariek

Antolatzaileek jakitera eman digutenez, herriko tenis jokalariek zorte ezberdina izan dute lehen txanda honetan.

Ander Huegunek erraz garaitu zuen Toni Gonzalez, 6-1 eta 6-0.



Tenis txapelketako lehen txanda jokatu da aste honetan.

Javier Velascok ere garai-pena lortu zuen. Iker Maciasen aurka jokatu zen eta 6-3 eta 6-2 irabazi zuen.

Alex Zubizarretak berriz, Carlos Pascualen aurka galdu zuen, 4-6 eta 3-6. Azkenik, Raul Ramosek 6-1 eta 6-0 irabazi zion Aitor Reyes herritarri.

Santi Lorenzo eta Fermin Tena bigarren txandan sartuko dira.

Teniseko zaletuek hitzordu polita dute arratsaldero 17:00etatik aurrera Michelin kirol gunean. Antolatzaileek jakitera eman dute txapelketa lasartenis.com orrialdean ere jarraitu daitekeela.

Agenda

Ostirala 12, 22:00etan, Okendo plazan



Hilkutxa batean zer egingo zenuke?

"Entre Lombrices" kale antzerkia eskainiko dute Zanguango teatro taldeko lagunek. Antzerkiaren kontzeptu berria ekarriko dute Lasarte-Oriara. Kuriositatea mantentzen al da lur azpiak metro bat zaudenean? Azken epaiako pizarrik ba al dago? Zein da denboraren zentzua 2 tona lur gainean dituzunean? Galdera hauek eta beste hainbatek erantzun azkar bat eduki dezakete ikuskizun berezi honetan.

Antzerkia

ISLA PLAZA

Asteazkena 17, 12:00etan

Etxeko txikientzat ZooZoom kale antzerkia izango da. Familia osoari zuzendutako kaleko ikuskizunaz gozatzeko beste era bat proposatzen digu, partaidea, dibertigarria, interaktiboa, harrigarria.

OKENDO PLAZA

Ostirala 19, 22:00etan

Oihulari klown-en taldearen eskutik "Pronostiko erreserbatua" kale antzerkia. Mediki talde ez gai bat Lasarte-Oriara iritsi da.

Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIAN

Uztailak 16a arte

Unai Azkarate bergararraren "Soinuak kolore bihurtzen" margo erakusketa ikusgai.

Uztailak 18tik 31era

Shandra Perez Lucero herritarren "Nire azken obra" margo erakusketaz gozatzeko aukera.

Tailerra

ATSOBAKAR PARKEA - UNTZIA

Larunbata 13, 10:00etatik 13:00etara

8 eta 14 urte arteko gaztetxoentzat baratza tailerra egingo da.

Jaiak

ORIAKO AUZOAN

Astearte 16

Oria auzoko bizilagunek Karmengo Amaren eguna ospatuko dute. Tritikilarik, meza eta luntxa izango da.

Lasarte-Oria

Zinea

OKENDO PLAZA

Osteguna 18, 22:00etan

Udako Zine zikloaren barruan, "El Caballero oscuro" filma eskainiko dute, Okendo zinema taldearen eskutik. Gaztelaniaz.



Musika

ATSOBAKAR ZAHAR EGOITZA

Asteazkena 10, 17:30ean

"Gurekin gozatu uda berezi honetan" egitarauaren barruan, Jose Mari Sororen, Nagusilaneko bolondresaren, ekitaldia izango da.

ZULO ARETOAN

Ostirala 12, 00:00etan

Reggae, dancehall eta jungle doinuak A Rasta K DJ-aren eskutik.

Larunbata 13, 00:00etan

VV-ko Sho-Hai-k hip hop doinuak ekarriko ditu Zulo aretora.

Ostirala 19, 00:00etan

Manchester, rock, 90s eta doinu elektronikoak EG/MR-ren eskutik.

Larunbata 20, 00:00etan

Orphidal DJ-ak musika elektroniko eta bass doinuaren oinarritutako saioa egingo du.

OKENDO PLAZA

Larunbata 13,

19:30ean

"Low Riders" taldeak country, rockabilly eta blues doinuak eskainiko ditu Udako Kultur Kale Zikloko saioan.



Herritarren txokoa

Galdutako arropa

Sorgin Dantzako entsegutan Landaberri BHI-n jendeak ahaztutako hainbat arropa jaso da. Guztia Ttakuneko bulegoan dago beraz galdu dutenek harrera orduan pasa daitezke hauek jasotzera.

Kiroldegiko Udako ordutegia

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak jakin arazten du, uztailaren 1etik aurrera udako ordutegia izango dela indarrean.

Kiroldegia astelehenean ostiralera 7:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 22:00etara egongo da irekia, larunbatetan 9:00etatik 13:00etara eta igandetan itxita egongo da.

Kirol Gunea, berriz, astelehenean ostiralera 10:00etatik 12:30era eta 17:00etatik 21:00etara irekiko dituzte, larunbatetan 9:00etatik 13:00etara eta igandetan itxita dago.

Islada Ezkutatuak taldeak testigantzak behar ditu

Maiatzaren 22an 75 urte bete ziren Ezkaba mendian, Iruña inguruan dagoen San Cristobal fuertetik 800 presoren ihesaldia gertatu zela.

Islada Ezkutatuak taldea jakinaren gainean dago presondegi horretan

lasarteoriatar bat baino gehiagok jasan behar izan zuela hango bizimodu latza.

Oroimenaren alde lan egiten ari den taldeak dei egiten die presondegi horretan egon ziren senitarteko edo ezagunen bat duten herritarrei haiekin harremanetan jar daitezten. Asmoa kasuak ezagutu eta zerrenda bat osatzea da. Lasarte-Orian denboraldi bat bizitako edo eskualdean bizitako pertsonen testigantzak ere jasoko dituzte.

Honetarako 695 756 565 zenbakira deitu behar dute.

Uztaro Kooperatiba

Badira urte batzuk Uztaro Kooperatiba Lasarte-Orian martxan hasi zenetik. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsu bat izatearena da, bertakoa eta ekologikoa.

Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarteok lokalean banatzen dira barazki eta fruitak, garaien garaikoak eta ekologikoak.

Kooperatiba honen proiektua gus-tuko dutenentzat atek zabalki dituztela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko uztarolasarteoria@hotmail.com helbidetan.

Eskutitza

Monarkia nahiz Errepublikaren itzalean, bandera espainarra inposatu egin nahi diguzue

Españako banderaren inposaketari buruzko eztabaidaren harira, harrituta utzi gintuen Ricardo Ortégaren erantzunak. Maiatzaren 17ko ekitaldian, errepublika garaiko Españako bandera zabaldu zuenaren erantzuna espero bai-kenuen, eta ez noski EBko zinegotzi izan zenarena. Hura isilik dagoen bitartean, ordea, Ortega jaunari egokitu zaio aurpegia ematea, zentzugabekeriez jositako idatziarekin.

Ortega jaunaren gutun hori zentzurik gabeta dela diogu eta arrazoituko dugu zergatik. Ezbaian dagoen gauza, Españako bandera inposatu nahi izatea dela ados badator ere, ulergaitza egiten zaigu errepublika garaiko bandera espainarra mahai gainean zabaltzea axolarik ez diona ikustea. Askoz zentzugabeagoa, jakina, bandera horrek bertaratutako zati txiki baten babes iharra besterik ez zuela aitortu duenez gero.

Bandera horri sinbolo guztiei diogun errespetu bera diogu. Baina, ez dugu ukatzerik sinbolo espainarra dela, bertako herritarrentzat zaitzailea dela

eta gure oniritzirik gabe zabaldu zela aipatu ekitaldi hartan. Beraz, ezin uka liteke salatu nahi genuen antzeko inposaketa baten aurrean jarri gintuela delako bandera hori jarri zuenak.

Ongi letorkioke, gainera, umiltasun pixka bat Ortega jaunari. Euskal historiarekin jabetuago balego, ondo asko jakingo luke berak hizpide duen herrien Europa aldarrikatzen lehenengoak euskal nazionalistak izan ginela, hogeigarren mendeko garai gogorrenetan. Ortega jaunaren leinukoek sozialismo errealearen izenean Europa Ekialdeko nazio tikiak gordinki zanpatzen zituzten garaiak ziren, suertez atzean utzi ditugun aldi haiek. Hona hemen, beraz, Lasarteko zinegotzi nazionalista iritzia. Abertzale internazionalista direnena, abertzale internazionalistei eska biezaie Ortega jaunak. Bakoitziara berea.

BAI Plataforma (Bakea, Askatasuna eta Ikurrina) Lasarte-Oriako atzoko eta gaurko zinegotzi nazionalista guztien izenean

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Goza dezagun kale ekintzetaz

► *Lasarte-Oriako Udalak uztailean antzerkia, zinea, tailerrak eta kontzertuak antolatu ditu herritarrek kulturaz goza dezaten* ► *Ikasturtean zehar ere tailer gehiago aurreikusten dituzte*

Lasarte-Oriako Kultura eta Gazteria sailek ekintzaz betetako egitaraua aurkeztu dute uztaileko. Kale antzerkia, zinea, tailerrak eta kontzertuek herriko kaleak hartuko dituzte hurrengo asteetan. Eta ez ditugu ahaztu behar Karmengo Amaren eta Santa Ana eguneko ospakizunak ere.

Nerea EIZAGIRRE

Uztaila honetan asteburuetan ez da aspertzeko tartarik izango. Lasarte-Oriako Udalak adin gutxiei zuzendutako ekintzak antolatu ditu hilabete honetan etxetik atera eta kaleaz gozatzeko.

Boris Nogales, Kultura saileko arduradunak azaldu digunez, "jendeak kalean ekintzak egotea eskatzen du" eta horri erantzunez antolatu da uztaileko eskaintza kulturala.

"Doaineko programazioa da eta merxe duena. Horregatik, herritarrei kalera atera eta ekintzetara joateko gonbita egiten diet," adierazi du.

Zinea

Gauzak honela, kulturaz betetako uztaile honetako lehen ekintza ostegunean burutu zen.

Herritarrek "Bypass" filmaz gozatu ahal izan zuten Okendo plazan. Euskarazko bertsioan bazegoen ere, gaztelaniazko azpitituluak izan zituen filmak.

Giro ederrean barre eta algarak egin zituzten plazara hurbildu ziren herritarrek.

Zineaz kalean gozatzeko bigarren aukera, uztailearen 18an izango da.

Saioa honetan, Batman heroia "El caballero oscuro" filma ikusi ahal da.

Kultura sailak ekimen honetan Okendo Zinema taldearen laguntza duela onartu eta filmak haiek proposatutakoak direla azpimarratu du.

Honetaz gain, eguraldi txarra eginez gero, zine emaldia BM-ko aterpean egingo dela jakitera eman dute.

Kontzertuak

Zineaz gain, Okendo plazan



Ostegunean, hainbat herritarrek gau giro ederraz eta "Bypass" filmaz gozatu zuten Okendo plazan.

Kultur kale Zikloko udako kontzertuak ere izango dira.

Country, blues, jazz, swing edo New Orleans-eko doinuak entzungo dira larunbata arratsaldeetan, 19:30etatik aurrera, egingo diren saio ezberdinetan.

Okendo plazan, uztailearen 13an, Low Riders taldea izango da eta 27an, berriz, "The Cottontails" taldeak jarriko du dantzan erdigunea.

Uztailearen 20an, N.O.S. taldearen tzanda izango da Sagardotegi Kalean.

Antzerkiak

Era berean, uztailean kale antzerkietaz ere gozatu ahal da, Kale antzerkia bultzatuz ekimenari esker.

Antzerkietako bat haurrentzako izango da. Uztailearen 17an, eguerdian Markeliñe taldeak "ZooZom" ikuskizuna ekarriko du Isla plazara. Bertan bildutzen diren haurrek ederki gozatu dute zoo berezi batetaz.

Beste bi antzerkiak berriz, helduei zuzendutakoak izango dira. Hurrengo ostiralean, uztailearen 12an, Kolektibo

Monstrenko taldeak "Entre lombrices" lana eskainiko du eta "Pronostiko erresebatua" lana aurkeztuko du Oihulari Klown taldeak uztailearen 19an.

Kulturako arduradunak azaldu digunez, "nahiz eta Okendon iragarrita egon bi antzerki lan hauek ibiltariak dira eta beraz, erdialdeko kaleetan barrena ibiliko dira".

Gainera, eguraldi txarra egingo balu ikuskizunak tabernatan sartzeko aukera izango dutela ere aurreartu zuten.

Jaiak

Bestalde, hilabete honetan herrian oso errotuak dauden bi ospakizun egongo dira, Santa Ana eta Karmengo Amaren eguna.

Uztailearen 16an, ohitura den legez, oriatarrek haien zaindaria den Karmengo Amaren eguna ospatuko dute.

Uztailearen 26an, aldiz, Santa Ana eguna ospatuko da. Honetan ohiko meza, dantza, pala txapelketako finala eta ospe handia duen parodia izango dira.

Eta egun honi lotuta, uztailearen 21ean, Santa Ana azoka antolatuko da. Kultura sailak aurreratatu duenez, aurtengo gonbidatua Pedro Subijana izango da.

Tailerrak

Hilabete honetako eskaintzarekin amaitzeko 8 eta 14 urte arteko gaztetxoei zuzendutako tailerrak ditugu.

Uztailearen 13an, Atsotabar parkeko itsauntziaren ondoan, baratza tailerra egingo da.

Santa Azoka egunean, uztailearen 21ean, bi tailer egongo dira haurrentzako: filtro panpinak eta paper txirikordatuak.

Eta azkenik uztailearen 27an, Isla plazan arropa nola apaindu ikasiko dute.

"Iaz jende asko hurbildu zen eta erdigunetik beste auzoetara zabaldu nahi izan dugu. Gainera, ikasturtean zehar ere horrelako tailerrak egiteko asmoa dugu eta hauek deszentralizatzea, hau da, auzo ezberdinetan egitea," aipatu du Boris Nogalesek.



Baratza tailerrera hainbat gaztetxo hurbildu ziren iaz. Aurtun Atsotabarren izango da.

Xaralphoto

Kale Nagusia, 44
Lasarte-Oria
943 24 87 55

www.xaralphoto.com

